

INGURUMEN HEZKUNTZA ETA EKOLOGIA

2007/08

Gizarte Hezkuntza 3. maila, 4,5 kreditu

Helburuak

- Ingurune fisikoaren funtzionamenduaren oinarritzko mekanismoak ezagutu eta aztertzea.
- Gizakia izaki historiko gisa ulertzen laguntzea.
- Gaur egungo ingurumen arazoak ezagutu eta ulertzea
- Giza iharduerak ingurumenean dituzten ondorioetaz jabetu eta hauek baloratzea.
- Ingurumen Hezkuntzaren oinarritzko aspektuak ezagutzea.
- Ingurumenaren aldeko jarrerak sustatzea, bizi-kalitaterako ezinbestekoak direla ulertuz.
- Ingurumen Hezkuntzako proiektua diseinatzea.

Ebaluazio irizpideak eta metodologia

Ezinbestekoa da edukiak ezagutzeaz gain, hauek **ulertzea**, eduki desberdinei buruz hausnartzeko gai izatea eta hausnarketa behar den moduan **arrazoitua** izatea.

Klasean, eduki desberdinak landu eta azalduko dira. Testuei dagokienez, bibliografian proposatutako testuen irakurketa ulerkorra egin beharko du bakoitzak, hauek ulertzeko asmotan eta ez buruz ikasketo asmotan. Testuak etxean irakurriko dira, klasean hauetaz hausnartzeko.

Arazoaren azterketa eta proiektuaren diseinua taldeka edo banaka egingo da, batez ere klaseko orduetatik kanpo.

Bukaerako notarako, bi parte hartzen dira kontutan:

1. Edukietako **7 eta 8** puntuak: notaren %50. Aukerak:

- **taldeko lana** (4-5 lagun): zerrendako arazo bat aukeratzen da eta irakasleari komunikatzen zaio. Zerrendan ez dagoen arazo bat landu nahiz gero, irakaslearekin hitz egin behar da.
Emate data: I Fasea: azaroaren 23a; II Fasea: abenduaren 21a
- **azterketa**: Kasu honetan, landu beharreko arazoa beroketa (negutegi efektuaren handitzea, aldaketa klimatikoa) **edo** ozono estratosferikoaren gutxitzea ("ozono geruzaren zuloa") izango da, norberak aukeratu behar du. Azterketan, lanean eskatzen den pareko maila eta sakontasuna eskatuko da, bai arazoaren azterketan, baita eskuhartze diaktikoan ere.

2. Edukietako **1-6** puntuak: notaren %50. Azterketa.

Bi parteak gainditu behar dira

Lanak aurkezteko arauak:

- Lanak, eskuz, letra ona erabilita, makinaz edo ordenadorez egin daitezke.
- Orriak bi aldeetatik idaztea edo orriak berrerabiltzea gomendatzen da.

- Orri zuririk ez tartekatzea gomendatzen da.

EDUKIAK

1.- Ingurumen arazoak

Munduaren beroketaren arazoa: zer da negutegi efektua, azken 130 urteko handitzea, gizakion jardueren zerikusia, Kyotoko protokoloa
Ozono estratosferikoaren gutxitzea: zer da eta nola sortu zen ozono geruza, ozono estratosferikoaren gutxitzearen kausak eta frogak, Montrealgo protokoloa.

Aztarna ekologikoa

Luis Echarri, liburu elektronikoa **"Ciencias de la Tierra y Medio ambiente"**:
www1.ceit.es/Asignaturas/Ecologia/Hipertexto/00General/Principal.html

Amparo VILCHES eta Daniel GIL (2003): **"Construyamos un futuro sostenible"**. Cambridge Univ. Press. Madrid

Dennis Meadows etab. (2006): **"Los límites del crecimiento: 30 años después"**

2.- Ekologiako zenbait kontzeptu

Fotosintesia

Osagai organikoen erreketaren erreakzioa

Energia fluxua ekosistemetan eta maila trofikoetan

Materiaren zikloak: karbonoaren zikloa

Biodibertsitatea

3.- Historian gizakiak ingurumenean izan duen eragina: Gizakiaren historian izan diren fase desberdinen ezaugarriak eta ondorioak.

Javier BENAYAS " *Historia ecológica de la humanidad* "

4.- Gaur egungo garapen ereduaren ezaugarriak eta ondorioak.

5.- Giza garapena. Garapen iraunkorra.

Garapena, giza garapena eta garapen iraunkorra kontzeptuak: Leandro SEQUEIROS (1997) **"Entender el desarrollo"**. Educar para la solidaridad. Octaedro. Barcelona.

Garapen iraunkorra zer den eta nola lortu; ikuspuntu desberdinak: Roberto Bermejo y Álvaro Nebreda (1998) **"Conceptos e instrumentos para la sostenibilidad local"** (Cuadernos Bakeaz nº26; Serie Economía y ecología-7)

Beste batzuk: Banco Mundial, "Más allá del crecimiento económico": www.worldbank.org/depweb/spanish/beyond/beg-sp.html

Giza Garapenari buruzko txostenak: <http://hdr.undp.org/reports>

Roberto BERMEJO (2005) **"La gran transición hacia la sostenibilidad"**
Libros de la Catarata: Madrid

6.- Ingurumen Hezkuntza

Definizioa (Breiting, 1985) eta mota desberdinak (Lucas 1980, 1992)

Helmuga (IH-ri buruzko Nazioarteko I Mintegia, Belgrado, 1975) y
Helburuak (IH-ri buruzko Gobernuen arteko I Konferentzia,
Tblisi, 1977)

Ingurumen Hezkuntzak nolakoa izan behar duen ulertzeko mou desberdinak:

Itsu GARAIJAR SOUSA "Nacimiento, evolucion histórica y principios
básicos de la educación ambiental. Tendencias de la educación
ambiental".

Søren Breiting "Hacia un nuevo concepto de educación ambiental"

Francisco Heras Hernández (1994) "La educación ambiental no formal
y la participación"

Ingurumenari eta Ingurumen hezkuntzari buruzko munduko Biltzarrak

7.- Ingurumen Hezkuntzaren marko teorikoa

8.- Ingurumen arazo baten konponbidea bultzatzeko eskuhartze didaktikoko proiektua

I. Ingurumen arazo baten azterketa:

arazoaren definizioa eta egoera maila globalean eta tokikoan
ondorioak
kausak
irtenbide banakakoak eta globalak

II. Testuinguruaren azterketa eta ekintzen diseinua

Ingurumen hezkuntzaren Edukiak

Ingurumen hezkuntzaren Metodologia

Ingurumenaren kontzeptu sistemikoa, konplexua

Ingurumen hezkuntzaren Baliabideak

J. Eduardo García: "Fundamentación teórica de la educación
ambiental: una reflexión desde las perspectivas del
constructivismo y de la complejidad"